



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Jose M. Alzuri Vertiz  
Javier Bereau Miquelarena  
Izaskun Altxu Ariztegi  
Mikel Gereka Zelaia

2019ko martxoaren 13an, 13:00ak direnean, ez-ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. EMOT. BEHIN BETIKO ONESPENA.**

EMOT-a erakustaldi publikoan hilabetez batez jartzen zela 2019ko urtarrilaren 28 NAO-n eta 2019ko otsailaren 1ean Diario de Noticiasen eta Diario de Navarran argitaratu ondoren, bi bizilagunek haien alegazioak aurkeztu zituzten. Alegazioak aztertuta eta udal zerbitzu teknikoaren egindako txostena ikusita, **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1. EMOT-a mahaiaren gainean uztea eta alegatu dutenei 5 egunetako epea ematea, behar duten dokumentuak aurkez ditzaten.**

## **2. BAKE EPAILEA.**

Ikusita bake epailearen plaza utsa 2019ko otsailaren 12ko NAO-n argitaratu zela eta udalean erakustaldi publikoan egon zela 15 egunez. Aztertuta bake epailea izteko legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituztela, **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1. Isidro Bazterrica Mutuberria bake epaile hautatzea.**

**2. Izendapena, Nafarroako Auzitegi Gorenera bidaltzea behar diren ondorioetarako.**

Eta bertzerik ezean, 14:00ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.